



Iraunkortasun Plana 2019

Balantzea





BALANTZEA
IRAUNKORTASUN
PLANA
2019
Petronor



2019ko Iraunkortasun Plana Balantzea



Urtea amaitutakoan, Iraunkortasun Plana osatzen duen ekimen bakoitzeko kontuak azaltzeko unea da. Hona hemen lorpen-mailari buruzko balantzea:

17 Ekintza / **%94** Betetze-maila

| | | | |
|---|-----------------------------------|---|------------------|
|  | Etika eta gardentasuna | ⋮ | 1 EKINTZA |
|  | Pertsonak | ⋮ | 5 EKINTZA |
|  | Eragiketa segurua | ⋮ | 3 EKINTZA |
|  | Ingurumena | ⋮ | 2 EKINTZA |
|  | Aldaketa klimatikoa | ⋮ | 3 EKINTZA |
|  | Berrikuntza eta teknologia | ⋮ | 3 EKINTZA |

Aurrerago planeko ekintza bakoitzaren informazio zehatza kontsulta dezakezu, horiei buruzko adierazleekin eta gainerako informazioarekin.

Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

GJH guztietan modu etikoan lan egiten dugu bete-betean, legea betetzeko eta ondasun erkidearen ekonomia sustatzen duten ekimenak abian jartzeko.

Energia berriztagarriaren garapena

Energia fotovoltaikoaren sorkuntzen eta kontsumoen agregatzaile adimenduna jarri dugu Somorrostro Prestakuntza Zentroan. Energia berriztagarriaren arloan sortutako potentzia hirurogei etxetako kontsumoaren baliokidea da.



Lankidetzeta instituzionala

Segurtasun publikoari dagokionez, Petronorrek bete-betean lan egiten du arlo horretan eskumena duten instituzio guztiekin; esate baterako, Bizkaiko Suhiltzaileak, SOS DEIAK eta Herri Babesa.

Ekonomia zirkularra

Sukaldeko olio erabilia birziklatzeko sistematika garatu da, eta, bertan, lehengai moduan berrerabili da gasolioak egiteko.





BALANTZEA
IRAUNKORTASUN
PLANA
2019
Petronor



1 Gure iraunkortasunaren ikuspegia eta Plan hau prestatzea9

2 2019ko Iraunkortasun Plana

| | |
|---|----|
| 2.1 Garapen Iraunkorraren helburuak | 10 |
| 2.2 Laburpena | 12 |
|  2.3 Etika eta gardentasuna | 13 |
|  2.4 Pertsonak | 15 |
|  2.5 Eragiketa segurua | 21 |
|  2.6 Ingurumena | 25 |
|  2.7 Aldaketa klimatikoa | 28 |
|  2.8 Berrikuntza eta teknologia | 32 |

3 Plana eguneratzeko prozesua36

Iraunkortasun Plan honek ekintza-multzoa du eta oso-osorik ala zati batean legeak eskatzen duenetik urrunago doa. Beren helburua garapen iraunkorrari ekarpena egitea da. Repsol taldeko enpresa partaideek horiei guztiei aurre egin eta betetzeko asmo irmoa dute. Hala eta guztiz ere, betetzeko orduan aldatu, atzeratu edo indargabetzeko ahalmena gordetzen dute, legezko erantzukizunik izan gabe. Ildo horri eutsiz, kasu horiek jendaurrean justifikatzeko konpromisoa hartzen dute.

© PETRONOR, S.A. 2019: Eskubide guztiak gordeta daude. Agiri hau Petronor, S.A. ren jabetzakoa da eta oso-osorik edo zati batean erreproduzi daiteke bakarrik merkataritza-helbururik gabe hedatzeko bada.

Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu. Pertsonen oinarrizko eskubideak betetzeko ezinbestekoa den gorako energia-eskea asetzen saiatzen gara eta, aldi berean, epe labur eta ertainean balioa ematen diogu.

Gizartean eta ingurumenean **eragin positiboak maximizatu eta negatiboak minimizatzen ditugu** gure balio-katean zehar eta, horretarako, jarraibide etiko eta gardenaz baliatzen gara. Hala, indarreko araudia betetzeaz gain, nazioarteko estandar nagusiak kontuan hartzen ditugu.

Abiapuntu horietatik, gure iraunkortasun ereduak erabakiak hartzean alderdi etiko, ingurumenaren inguruko eta sozialei erreparatzen die eta interes-taldeekin elkarrizketak izaten dira aurretik. Urtero egiten dugun jarduketara da, eta horren ondorioz sortzen diren ekimenek erantzuna ematen diete interes-taldeok maila globalean eta tokian-tokian dauzkaten kezkei.

Hala sortu dira **Iraunkortasun Planak**, urteko ekintza-plan publikoak. **Iraunkortasun Plan Globala** ibilbide-orria da, eta, bertan oinarrituta, Tokiko Planak hedatzen dira. Azken horiek, gainera, tokiko testuinguruarekin lotutako konpromisoak ere hartzen dituzte kontuan.

Iraunkortasun Plana Petronorren Iraunkortasun Ereduaren sei ardatzen inguruan egituratzen da.



Etika eta gardentasuna

Gauden toki guztietan arduraz eta zintzotasunez jarduten dugu



Pertsonak

Pertsonen aldeko apustua egiten dugu eta beren garapena nahiz gizarte-ingurunearena bultzatu ere bai



Eragiketa segurua

Gure langileen segurtasuna, kontratistena, bazkideena eta tokiko erkidegoarena bermatzen dugu



Ingurumena

Energia-eraginkorrena sortzeko ezinbesteko baliabideak kontsumitzen ditugu, ahalik eta eragin txikienarekin



Aldaketa klimatikoa

Aldaketa klimatikoaren konponbidearen kide izan nahi dugu



Berrikuntza eta teknologia

Berrikuntza sustatzen dugu eta aurrerapen teknologikoak eranstean ditugu gu eta gure ingurunea hobetu eta hazteko



Petronorren, Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako **2030eko Agenda** babesten dugu, eta Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH) jotzen ditugu erreferentziatuz, geure lehentasunak zehazteko orduan.

Lehentasun hori eratzeko orduan, konpainiaren eta gure interes-taldeen ustez garrantzitsuenak diren GJHak hartu ditugu kontuan. Hori dela eta, gure ahaleginek honako hauxe izan behar dute xede, lehenengo eta behin: **7. GJH** (energia eskuragarria eta ez-kutsagarria), **8. GJH** (lan duina eta hazkuntza ekonomikoa) eta **13. GJH** (klimaren aldeko ekintza), energia eskuratzean daukagun zereginagatik, garapen sozioekonomikoan egiten dugun ekarpenagatik eta klima-aldaketaren aurkako borrokagatik.

Bigarrenez, **6. GJH** (ur garbia eta saneamendua), uraren kudeaketaren hobekuntzarekin dugun konpromisoagatik; **9. GJH** (industria, berrikuntza eta azpiegiturak), berrikuntzari eta teknologiarri ematen diegun babesagatik; eta **12. GJH** (ekoizpen eta kontsumo arduratsuak), ekonomia zirkularra dugulako xede.

Petronorrentzat, 2030eko Agendan ekarpena egiteko modu eraginkorrena beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lan egitea da, jakintza eta teknologiak trukatu ahal izateko. Hori dela eta, guretzat funtsezkoa da ahaleginak **17. GJHen** esparruan lerrokatzea (helburuak lortzeko aliantzak).



Horrez gain, era guztietako inguruneetan jokatzeko orduan daukagun erantzukizunari esker, ekarpen adierazgarria daukagu GJH guztietan.



Tokiko testuingurua kontuan hartuta **Plan** honetan zehaztutako **ekintzek 2030eko Agenda** babestea dute xede, honako helburu hauek jorratzean:



Iraunkortasun Plana
Petronor
2019 / **17** Ekintza




Plan honetan zehaztutako ekintzen %76 Petronorreko langileen ordainsari aldagarrirako sistemarekin lotuta daudenez, konpainiak garapen iraunkorrerako ekarpenaren maximizazio eraginkorrarekin daukan konpromiso argiaren erakusgarri dira.

Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Kokagunea dugun herrialde guztietan **zintzoki dihardugu**. Gure jarraibide etikoarekin, legea zorrozki betetzeaz gain, bere espirituari erreparatzen diogu.

Ardatz honetan konpainiak Petronorren langile guztientzat, baita gure hornitzaile, kontratista eta enpresa laguntzaileentzat ere **kultura zintzoa eta arduratsua** sustatu eta bultzatzen duela ziurtatzeko ekintzen multzoa zehazten da.

Gainera, **gardentasuna eta kontuak ematea** defendatzen dugu Petronorren iraunkortasun-ereduaren elementu bereizgarri gisa. Sinesgarria izateko, modu eutsian gardena izatea oinarritzkoa da.

Iraunkortasun Plan honetan arloan konpainiak proposatu dituen erronkak lortzeko ekintzak onartu dira. Horrez gain, alde interesdunen itxaropen nagusiei erantzun nahi zaie.



Gobernu onerako jardunak

Gardentasuna

Erantzukizunpeko fiskalitatea

Ustelkeriaren aurka

Bidezko lehia

Partaidetza politiko arduratsua

Marketin eta salmentaren
jardun zintzoak



EKINTZA

Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziak Operadore Ekonomiko Baimendu (OEB) moduan aitortu duela jakinaraztea.

DESKRIBAPENA

Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziak Operadore Ekonomiko Baimendu moduan aitortu du Petronor, kasuan kasuko auditoriak gainditutakoan eta aduanen zein zergen arloko betebeharrak behar bezala bete dituela egiaztatu ondoren.

Aitortza horrek argi eta garbi adierazten du Petronorrek Europar Batasunak segurtasunaren eta sinplifikazioen arloan eskatutako betekizunak betetzen dituela eta aitortza ofiziala ematen zaiola fidatzeko moduko operadore seguru moduan.

ADIERAZLEA

Webguneetan eta tokiko zabalkundeko aldizkarietan lau argitalpen egitea.

ZER LORTU DUGU?



Operadore Ekonomiko Baimenduaren (OEB) ziurtagiria lortu dugu, eta, horren logoa komunikazio guztietan erabili denez, betearazpenaren atalasea gainditu da (Petronorren webgunean, Petronorrek egindako faktura guztietan, itsasontziak likidatzeko agirietan eta mezu elektronikoetako sinadura-oinean).

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Gure langileak, erkidegoak, merkataritza-harremanak eta bezeroak gure iraunkortasun-ereduan ardatz nagusi dira.

Jakitun gara **Petronor osatzen duten pertsonak** gure lehen abantaila lehiakorra direla, baita **konpainia iraunkorra izateko gakoa ere**. Aukera-berdintasun, gaitasun desberdinak dituzten pertsonen integrazio, kultura aniztasun, lanbide-biziaren eta pertsonaren arteko oreka, prestakuntza eta garapen nahiz talentua erakarri eta geldiaraztearen aldeko apustua egiten dugu.

Enpresa-jarduera gero eta gizarte-ingurune zorrotz eta jakitunagoan gauzatzen da eta konpainiek ahaleginak egiten ditugu **elkarrekintzan dihardugun eragileekin harreman sendoak ezartzeko**. Ildo horri eutsiz, bereziki erreparatzen zaie gure eragiketetikiko erkidego hurbilei. Errespetua, kultur sentikortasuna, zintotasuna, erantzukizuna, gardentasuna, fede ona eta diskriminaziorik eza dira gure oinarriak. Petronorren giza eskubideak errespetatzen jarraitzeko konpromisoa dugu. Hala, gure jarduerak eta erabakiek inguruneke pertsonengan ondorio negatiboak ez izaten saiatuko gara. Dena den, gertatuz gero, eragindako kaltea konpontzeko ahaleginak egingo dira.

Ardatz honek hurrengo ekimenak ditu.



Giza eskubideak
(lan-eskubideak eta
lan-baldintzak, osasuna, talde
kalteberen eskubideak eta
bestelakoak) errespetatzea

Erreklamazio-mekanismoak

Aniztasuna eta bateratzea

Giroa eta talentua geldiaraztea

Prestakuntza- eta garapen-
aukerak kudeatzea, erkidegoarekin
solasaldia eta inbertsio soziala, etab.



EKINTZA

Tokiko enplegua eta industria-sarea mantentzen laguntzea.

DESKRIBAPENA

Tokiko enplegagarritasuna bultzatuko dugu INPEK tresna informatikoaren bidez. Tresna hori Somorrostro Prestakuntza Zentroarekin garatu dugu, enplegu-eskatzailleak enpresa kontratugileekin lerrokatzeko.

ADIERAZLEA

Gutxienez, 50 lagun kontratatzea INPEK plataformaren bitartez.

Bizkaiko enpresei gutxienez 2019an jaulkitako kontratu/eskaeren %25 esleitzea.

ZER LORTU DUGU?



Batez beste, 70 lagun baino gehiago kontratatu ditugu azken 3 urteotan INPEK plataformaren bidez, eta Bizkaiko enpresentzako ondasunen eta zerbitzuen kontratazioaren %32 eta %37 esleitu dugu, hurrenez hurren.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Berdintasunerako Planean zehaztutakoak baino ekintza gehiago hedatzea.

DESKRIBAPENA

2018an egindako ekintzak sendotu egin direnez, ezarri gabe geratu diren beste batzuk bultzatuko dira.

ADIERAZLEA

Gutxienez, 5 ekintza berri ezartzea.

ZER LORTU DUGU?



Berdintasunerako Planean zehaztutako eta Jarraipen Batzordeak bultzatutako lau ekintza adierazgarri egin ditugu. Ekintza batek emakumeek gizonen ohiko kirol-eremuetan duten agerpena handitzea izan du helburu. Bi ekintzek generoaren inguruko sentsibilizazioa egin dute Berrikuntza Sailean eta Langileen Administrazioarako Sailean. Laugarren ekintzan, ordea, Erasoaren aurkako Garrantziaren Protokoloa berrikusi da.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Unibertsitate eta lanbide-heziketako zentroi begira, bisitak eta mintegi teknikoak sustatzea.

DESKRIBAPENA

Unibertsitate eta lanbide-heziketako zentroetako lanbide informazio eta prestakuntzaren eskeari erreparatuko diogu. Bi lankidetzajarduera zehaztuko ditugu:

- Lanbide-heziketa zentroek eta unibertsitateek Petronorren instalazioak bisitatu nahi izanez gero, erraztasunak emango ditugu.
- Prestakuntza-profil horietan eraikundeetako ikasleentzat prestakuntza eta praktiken hitzarmenak egingo ditugu.

Laborategia sail egokia da, besteak beste, halako jarduera-motatan aritzeko.

ADIERAZLEA

Praktikak egiteko gutxienez 3 bekadun sartuko dira.

Laborategia bisitatzeko eskaeretatik gutxienez 3/4 erantzungo da.

ZER LORTU DUGU?



Inguruko premiei aurre egiteko eta laborategiko tekniken zein finketa-prozesuen inguruko interesa duten ikasleei prestatzen laguntzeko asmoz, Prestakuntza Dualeko eta Euskal Herriko Unibertsitateko 5 bekadun eduki ditugu geure laborategian. Horrez gain, bisitaldiak artatzen ditugu, eta, bertan, findegia nola dabilen azaltzen da. Era berean, osteratxoak ere egiten da laborategitik, ikastetxeetako ikasleek findegiko produktuak ikusi ditzaten.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Lantegi Kimikoko operadoreentzako ikastaroa egitea 20 lagun prestatzeko.

DESKRIBAPENA

Apirilean hasiko gara hautaketa-prozesua egiten.

ADIERAZLEA

Pertsona horien %60 Muskiz, Zierbena eta Abanto-Zierbenakoak izatea.

Gutxienez, hautatutako pertsonen %40 emakumeak izatea.

ZER LORTU DUGU?



2019ko ekitaldian, OPQko bi ikastaro antolatu ditugu. 701 eskatzaileetatik, 41ek egin dute ikastaroa. Ez da generoaren helburua bete, eskakizunak betetzen zituzten emakumeetatik 3k bakarrik gainditu zituztelako sarrera-probak.

GIHEKIKO EKARPENA:



2019ko Iraunkortasun Plana

Pertsonak: Ekintzak



EKINTZA

Lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurriak sendotuko dira.

DESKRIBAPENA

2019an bateragarri egiteko orduan gehien erabili diren neurriak zein izan diren zehaztuko da.

ADIERAZLEA

Bateragarri egiteko tresnen eskatzaile guztiengana iristea.

ZER LORTU DUGU?



Familia eta lana bateragarri egiteko neurri guztiak artatu ditugu, eta ezarri beharreko inguruabar guztietan ezarri dira.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Gure asmoa **Zero Istripu** lortzea denez, segurtasun-maila handia eskatzen dugu geure prozesu eta instalazioetan, eta lehentasun berezia ematen diegu pertsonen babesari eta geure inguruneari. Era berean, geure **hornitzaile eta kontratisten** sentsibilizazioa ere lantzen dugu.

Segurtasuna eta ingurumena balioaren sorrerarako, bikaintasunerako eta erantzukizunerako oinarria direla jakin badakigunez, **2025erako Segurtasun eta Ingurumeneko Estrategia** jaulki genuen 2018an. Jarduketarako funtsezko giltzarriak zehaztu ditugu, eta, 2025. urteari begira, konpainiak bertan egingo ditu ahaleginak segurtasunaren arloan: kultura, lidergo eraldatzailea eta segurtasunaren zein ingurumenaren arloko sentsibilizazioa bultzatuko ditugu. Esparru horretan, giltzarrietako bat **gure prozesuetako segurtasuna** da, eta, bertan, industriako liderrak izan nahi dugu honako hauexen bidez: geure arriskuen kudeaketa, geure instalazioen osotasuna eta krisiari zein larrialdiei aurre egiteko prestakuntza onena.

Gure konpromisoaren adierazgarri, segurtasunaren helburuek %15etik gorako **eragina** izan dezakete gure langileen **ordainsari aldagarrian**.

Hona hemen segurtasunarekin daukagun konpromisoaren adierazgarri diren ekintzak.



Prozesuetan eta garraioan
istripu-tasa pertsonala
prebenitzea

Gorabeherak kudeatzea

Larrialdiak kudeatzea

Produktuak erabiltzean
segurtasuna



EKINTZA

Industria-segurtasunaren arloan tokiko erakundeekin lankidetzan jardutea.

DESKRIBAPENA

Segurtasun industrialaren arloetan tokiko erakundeekin garatzen dugun lankidetzaren bidez, Petronorren lankidetzarako bideak ezarri nahi ditugu inguruko herritarren segurtasuneko erakundeekin; esate baterako, Bizkaiko Aldundiko suhiltzaileak, SOS Deiak, Herri Babesa eta beste batzuk, egon baleude.

ADIERAZLEA

Informazioa trukatzeko gutxienez urtean bi bilera egitea.

ZER LORTU DUGU?



Tokiko instituzioekin segurtasunaren arloan lan egiteko asmoz, honako ekintza hauek egin ditugu 2019. urte honetan: bilera partikularra egin dugu Ertzaintzarekin, Sos Deiak erakundearekin zein Suhiltzaileekin batzartu gara, 8 bisitaldi antolatu ditugu Uriosteko parke osotik Petronorrera eta, Muskiz / Abanto / Zierbanako udaletan, bilerak egin ditugu Avek Químicarekin, alkateekin, Udaltzaingoarekin...

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Industria-gorabehera handiak saihesteko Repsolek definitutako aurretzeko segurtasun-programa (PROYECTOS) betetzea.

DESKRIBAPENA

Aurea hartzeko segurtasunerako zenbait proiektu zehaztean, gorabehera pertsonalak eta prozesuko segurtasuneko gorabeherak murriztea da helburua, 2020rako zehaztutako bidea kontuan hartuta.

ADIERAZLEA

Prozesuko honako segurtasun-indize hauek lortzea: maiztasun osoaren indizea $<2,13$ eta maiztasunaren indizea $<0,91$.

Aurea Hartzeko Planean zehaztutako 6 proiektuetako helburuak betetzea.

ZER LORTU DUGU?



Istripu-tasaren adierazleei dagokienez, gorabehera-tasa industrialaren adierazlerako zehaztutako helburua bete dugu, eta badago istripu-tasa pertsonalean hobera egiteko aukerarik. Segurtasunaren arloan, 6 proiektutan lan egin dugu aurea hartzeko segurtasunaren esparruan, 2019an bete beharreko mugarriak zehazteko eta horietan guztietan azaldutakoa abian jartzeko.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Gure langileen nahiz kanpoko langileen prestakuntzarako ekintzak egitea segurtasunaren, ingurumenaren eta arrisku psikosozialen arloan.

DESKRIBAPENA

Ekintza hau jarriko dugu abian, enpresa kontratisten ekimenekin lerrokatuta egon dadin. Horrela, sistematika uniformea lortuko dugu gune industrialean lan egiten duten pertsona eta enpresa guztietan.

ADIERAZLEA

1.000 lagunentzako prestakuntza lortzea.

ZER LORTU DUGU?



Adierazitako gaiei buruzko prestakuntza-saioak egin ditugu, eta 3.186 langilek parte hartu dute bertan. Prestakuntza hori zerbitzu industrialen enpresa hornitzaileetan nahiz Petronor SAko bertako enpresetan eman da.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Gizartearen kezkarekin bat gatoz, bizileku dugun ingurumena zaindu beharra dagoela esaten denean. **Gure eragiketen eragina ahalik eta txikiena** izatea nahi dugunez, airerako isuriak murrizten ditugu, uraren kudeaketa hobetzen dugu, hondakinak kudeatzen ditugu, isurien karga kutsatzailea gutxitzen dugu eta isurien prebentziorako zein erantzunerako sistemak hobetzen ditugu, biodibertsitatea funtsezko elementua dela kontuan hartuta.

2018an, 2025erako Segurtasun eta Ingurumeneko Estrategia jaulki genuen, eta, bertan, jarduketarako funtsezko lerroak zehazten dira. 2025. urteari begira, konpainiak bertan egingo ditu ahaleginak ingurumenaren arloan: ingurumeneko **eraginak eta menpetasunak kuantifikatzeko eta balioesteko** gai izan behar gara, negozioari buruzko erabakiak babesteko. Horretarako, faktore kalteberenei ematen diegu lehentasuna, gauden lekuan gaudela ere, baina, batez ere, urari. Era berean, lizentzia sozialari eustea ere izango dugu jomuga, gure proiektu eta eragiketen bizi-ziklo osoan garatutako **ingurumen-kudeaketa bikain** bezain jasangarriaren bitartez. Horretarako, aukera berrien sorrera sustatzen dugu **ekonomia zirkularraren** arloan, eta eraginkortasunez erabiltzen ditugu baliabide naturalak, gehieneko eraginkortasunaren, gehieneko gardentasunaren eta gutxieneko ingurumen-eraginaren irizpideen bitartez.

Iraunkortasun Plan honetan Petronorrek iraunkortasun-ardatz honetan dituen lan-ildoekin lerrokatutako ekintzak onartu ditu.



Baliabide naturalen kudeaketa
eraginkorra

Ingurumen-eraginak murriztea



EKINTZA

Zaratak eta Usainak Murrizteko Plana garatzea.

DESKRIBAPENA

2018ko Zaratak eta Usainak Murrizteko Plana egitean hobekuntza-ekintzak zehaztu ostean, Petronorren ahalegindu egiten gara gure zeregineko arlo nagusietan jarduten, ingurunearekin konpromisoa duen eta gure jardueren eragina murrizteko orduan proaktiboa den enpresa garela kontuan hartuta. Hona hemen jarduketaren arlo nagusiak:

- Aminako unitate eta stripperren operatibitatea hobetzea.
- Aeroetako zarata hobetzeko plana.

ADIERAZLEA

Lan-taldeari zaraten eta usainen plana garatzeko prestakuntza ematea eta plan hori erakunde osora igortzea.

Zuzendaritzari ekintza plana aurkeztea bi hobekuntza-arlo nagusietarako.

ZER LORTU DUGU?



Zaratak eta usainak murrizteko planari jarraipena eman nahian, 2019. urte honetan 3 lan-talde eratu ditugu, eta, talde bakoitzean, arlo horretan hobera egiteko jarduketa-plan zehatzak sortu dira. Horrez gain, zaratak eta usainak murrizteko planean lan egiten jarraituko dugu 2020ko kudeaketa-planaren bidez.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Unitateko etenaldi orokorrean, partikulen murrizketarako sistema berria jartzea, airearen kalitatea hobetzeko.

DESKRIBAPENA

RegenMax izeneko betegarri egituratu berria jarriko dugu FCC izeneko unitateko birsorgailuaren barruko aldean; eta, gaur egungoaren ordeztu, berez garbitzen den iragazkia, laugarren etapako banatzailearen irteeran.

ADIERAZLEA

Beharrezko aldaketa guzti-guztiak ezartzea.

ZER LORTU DUGU?



Partikulen iragazkia jarri dugu findegiko FCC unitatean, eta aurreikusitako emaitza lortu dugu.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...

Gizartearen kezkarekin bat gatoz, **giza jarduerak kliman bertan daukalako eragina**. Gainera, konpromiso irmoa daukagu mende honen amaierarako planetaren batez besteko tenperatura globalaren gehikuntza **2°C-ra mugatzeko** asmoarekin, industriaurreko mailak kontuan hartuta.

Gure erronka energia era seguru, eraginkor eta eskuragarrian hornitzea denez, negutegi-efektuko gasen (NEG) isuriak murrizten ditugu. Ustezko bide asko dagoz isuri gutxiko etorkizuna lortzeko, eta, horretarako, hiru elementu bateratu zehazten ditugu: eraginkortasun energetikoa eta energiaren aurrezkoa hobetzea; energia elektrikoaren sorkuntzan isuriak murriztea, bertan gas naturala funtsezko eragilea izango dela kontuan hartuta; eta azken sektoreetan isuri txikiko teknologiak hedatzea. Gure konpromisoa nabarmendu egiten da 2014-2020ko epealdiaren amaieran 2,1 Mt CO₂ eq isuri murrizteko helburuaren eskutik, eta konpainiak helburu hori hedatu berri du 3 Mt CO₂ eq Isuri Murrizteko 2018-2025eko Plan berrira. Aldi berean, metano-isuriak eta gasa zuzian erretzeko ohiko prozesua murrizteko helburuak ere zehaztu ditugu 2025. urteari begira.

Oil and Gas Climate Initiativera (OGCI) atxikita gaude, jarduketa eta irtenbide teknologiko onenak partekatuzko. Horrez gain, OGCI Climate Investment inbertsio-fondoan parte hartzen dugu, NEG isurien murrizketarako teknologien garapenari begira hamar urtean hitzartutako 1.000 milioi \$-ko inbertsioa bideratzeko.

Ondoren, ardatz honekin zerikusia duten Iraunkortasun Planaren ekintzak zerrendatuko ditugu.



Energia eraginkortasunez kudeatzea

BEG igorpenak murriz daitezen bultzatzea

Energia elektrikoa sortzean gas naturalaren erabilera sustatzea

Mugikortasun iraunkorra

Behe-igorpeneko ekonomiaren eredua



EKINTZA

Bihurketako eta 1. findegiko etenaldietan inbertsioak betearaztea, CO₂ren isuriak murrizteko.

DESKRIBAPENA

Honako hobekuntza-proiektu hauek ezarriko ditugu bihurketako eta 1. lantegiko etenaldi orokorretan:

FCCKo katalizatzailako striperraren ordeztze, betegarri egituratua jartzea.

- Plaka-sorta berriak jartzea huts-unitatea aurreberotzeko trenean eta N1 naftei sulfuroa kentzeko unitatean.
- Platformatuko 1. unitatean transferentzia-gunea handitzea eta hobetutako diseinudun Packinoxde trukagailu berria jartzea.
- Petrolioaren labean aldaketak egitea eta errektuntzako airearen aurreberogailua jartzea.

ADIERAZLEA

Aldaketen ezarpen-maila %100ekoa izatea.

%90eko murrizketa lortzea, aurreikuspena urteko 34.306 tonakoa dela kontuan hartuta (urteko oinarria).

ZER LORTU DUGU?



Inbertsioak egin ditugu kasuan kasuko sailletako etenaldietan. 2020ko lehenengo hiruhilekoan, prozesuko aldagaiak egokitzeko lanak egiten ari dira.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Zabalkunderako eta sentsibilizaziorako jarduerak antolatzea jasangarritasun energetikoa eta irisgarritasuna helburu dituzten faktore, gai eta hausnarketa-foroetan.

DESKRIBAPENA

Garraioari, mugikortasunari eta irisgarritasun jasangarriari begira egiten diren estrategiak eta faktoreak zabaltzeko eta jakitera emateko foroak bultzatuko ditugu, salgaien zein pertsonen garraioan.

ADIERAZLEA

Gutxienez, bi ekintza egitea zentzu horretan.

ZER LORTU DUGU?



Beste enpresa eta instituzio publiko batzuekin, Mugikortasun Jasangariaren lehenengo Biltzarra egin dugu Bilbon. Halaber, ibilgailu elektrikoen Ecorrally ere egin da.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Berotegi efektuarekin zerikusia duten gasak aztertzean nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.

DESKRIBAPENA

Aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan teknologiaren ikuspegitik garatua eta proaktiboa den neurrian, enpresak berotegi efektuko gasak aztertzean nazioarteko korrelazioetan parte hartuko du.

Korrelazioek gure laborategiko saiakuntzetan aplikatzen dugun analisiari buruzko neurketa-metodologiaren zorrotasuna argi eta garbi uzten dute. Alderaketa beste herrialde batzuetako izen handiko laborategiekin egiten da eta nazioartean ezagunak diren sozietateek parte hartzen dute.

ADIERAZLEA


Korrelazio internazionalen parte hartzea lortzea.

ZER LORTU DUGU?



Nazioarteko korrelazio ospetsu batean parte hartzeko helburua bete dugu, gure laborategiko datuak erkatu nahian, eta oso emaitza onak erdietsi ditugu. Gainera, informazio horren berri eman diogu erakunde osoari, barruko komunikazioaren bitartez. Bestetik, nahi dutenentzat, korrelazioaren kalitateari buruzko ziurtagiria eta informazio guztia daude eskuragarri.

GIHEKIKO EKARPENA:



Petronorren garapen iraunkorrari laguntzen diogu...


Etorkizun iraunkorrak **zientzian eta teknologian inbertitzen duten konpainiak** eskatzen ditu, egungo eta etorkizuneko energia-erronkari egiazko konponbideekin aurre egiteko. Berrikuntza teknologikoa ingurunean energia-sistema eraginkor eta iraunkorragoak sortzeko elementua delakoan gaude.

Petronorren **unibertsitate eta ikerketa-zentroekin sarean lankidetzan lanaren** aldeko apustua egiten dugu. Hala, energiaren eremuan asmo handiko ideiak abian jartzea bultzatzen dugu, erronkei aurre egiteko eta, bide batez, ingurumenarekin konprometituta, etorkizun iraunkorra egituratzeko.

Teknologia ezin azkarrago bilakatzen ari da, eta aurrerakuntza teknologikoa sortzen diren unean bertan ezartzeko gai izan behar gara. Hori dela eta, asmo handiko programa dugu digitalizaziorako, konpainia eraldatuko du, aldaketa kulturala sustatuko du eta, horri esker, irtenbide digitalak garatuko ditugu energiaren kontsumo-modu berriei aurre egiteko.

Era berean, aliantzak bultzatu eta enpresen hazkuntza sustatzen dugu honako honexekin lotutako garapen-bideko arloetan: eragiketetako fidagarritasuna, ekonomia zirkularra, mugikortasun aurreratua, dibertsifikazio energetikoa, material berriak eta araketan zein ekoizpenean ezarritako teknologia digitalak.

Iraunkortasun Plan honetan Petronorrek iraunkortasun-ardatz honetan dituen lan-ildoekin lerrotatuta honako ekintzak onartu ditu.



Jarduera berriztatzailea
bultzatzea

Teknologia berriak erabiltzea

Gaitasuna sustatzea eta
ingurunearen garapena bultzatzea



EKINTZA

Sukaldeko olio erabilia (UCO -Used Cooking Oil-) findegiko blendingean sartzea, hondakina balorizatzeko.

DESKRIBAPENA

Sukaldeko olio erabilia prozesatuko dugu, findegiko gasolioen blendingean sartzeko, sulfuroa kentzeko tratamendua egin ondoren.

ADIERAZLEA

UCOri sulfuroa kentzeko tratamendutegian proba egitea.

UCOren tratamendua abian jartzea eta blendingean sartzea.

ZER LORTU DUGU?



UCO (Used Cooking Oil) tratatu dugu, dieselaren blendingera eranstean ari gara eta hondakinaren balorizazioa lortu dugu.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

“REQUIPLAST: hondakin plastikoen birziklatze kimikoa” ekoberrikuntzaren proiektua egitea. Plastikoen ekonomia zirkularri buruzko egiazko ikuspegia.

DESKRIBAPENA

Ekoberrikuntza Proiektuan 2019rako aurreikusitako zereginak betearaztea. “REQUIPLAST: hondakin plastikoen birziklatze kimikoa” ekoberrikuntzaren proiektuan aurrez ikusitako zereginak gauzatuko ditugu. Plastikoen ekonomia zirkularri buruzko egiazko ikuspegia. Mekanikoki birziklagarriak ez diren hondakin plastikoen birziklatze kimikoa aztertzean datza. Helburua tratamendu termikoaren prozesuen bidez olio bihurtzea da, findegietan aprobeitza baitaiteke.

ADIERAZLEA

2019an proiekturako aurreikusitako etapak osatzea.

ZER LORTU DUGU?



Hondakinak baliabide berri moduan ustiatzeko jakintza sustatu dugu, Euskadiko hondakin plastikoen pirolisako olioaren tratamendurako REQUIPLAST proiektuaren bidez. Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren esparruan, proiektu eredugarria izan da, Eusko Jaurlaritzak “ekoberrikuntzarako laguntzetako” 200.000 euroren bidez babestu du ekonomia zirkularreko proiektu sustatzaile industrial moduan eta lhiberen puntuazio handiena erdietsi du.

GIHEKIKO EKARPENA:



EKINTZA

Somorrostro Prestakuntza Zentroan “Sorkuntzen eta kontsumoen agregatzaile adimenduna” izeneko proiektua abian jartzea.

DESKRIBAPENA

Era berean, ekimen hau Muskiz, Zierbena eta Abanto-Zierbenako udalerrietara ere hedatzen saiatuko gara.

ADIERAZLEA

Lortutako energia fotovoltaikoaren sorkuntza eta banaketa zerbitzuan jartzea.

ZER LORTU DUGU?



Instalazio fotovoltaikoa jarri dugu Somorrostro Prestakuntza Zentroan (SPZ). Instalazioak 98 kilowatteko ahalmena dauka, eta SPZn bertan banatzen dira autokontsumo moduan. Metaketa-baterien ahalmena orduko 110 kilowattekoa da, eta eskolarik gabeko egunetan sortutako eta ez kontsumitutako energia metatuko dute.

GIHEKIKO EKARPENA:



Iraunkortasun Plana dokumentu dinamikoa da.

Urtero planeko ekintzen lortze-mailaren berri emango dugu eta, horretarako, ixte-txostena argitaratuko da.

Bestalde, gure alde interesdunei kezkatzen dizkieten itxaropenak eta gaiak aldakorrak direnez eta urtean zehar izandako gertakarien araberakoak direnez, Plana urtero ekintza berriekin edo indarrekoak berriz formulatuta eguneratuko da. Helburua egoera berrira egokitzea izango da.

Planaren ondoz ondoko eguneratzeek betetako ekintzen itzala utziko dute eta batera hartuta, gure konpainiak garapen iraunkorrari egindako ekarpena da.







Petronor

www.petronor.eus

